

Zergatik dira garrantzitsuak hedabideak XXI. mendean euskararentzat?

¿Por qué son importantes los medios de comunicación
en el siglo XXI para el euskara?

Pourquoi sont-ils importants les média au XXIe siècle
pour l´euskara?

Why are media important for the Basque language
in the XXIst century?

LANDABIDEA URRESTI, Xabier
Aisia eta Giza Potentzialean doktorea. Deustuko Unibertsitatea

GOIRIGOLZARRI GARAIZAR, Jone
Zientzia Sozialetan doktorea. Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2018-04-09
Noiz onartua: 2018-06-21

Artikulu honek 2017ko otsailean autoreek «Euskal hedabideak, itun bila» jardunaldian hedabideek euskararentzat duten garrantziaren inguruan esandakoak biltzen ditu idatziz. Jatorrizko hitz-hartzearen logikari eutsi nahi izan zaio hiru ardatzi helduta: euskararen normalizazio prozesuaren atzera begirakoa, hedabideen potentzialtasun garaikidea hizkuntzaren biziberritzearen ikuspegitik eta hedabideak eta euskara binomioak aurkezten dizkigun aukera eta erronkak etorkizunari begira.

Gako-hitzak: Hedabideak, euskara, biziberritza, komunikazioaren ekosistema.

Este artículo recoge por escrito los dicho por los autores en la jornada «Euskal Hedabideak, Itun bila». Quiere respetar la lógica de lo dicho en la jornada siguiendo tres ejes: repasar retrospectivamente el proceso de normalización del euskera, estudiar la potencialidad de los medios de comunicación en la revitalización de la lengua, y mirar al futuro, teniendo presente los retos y las oportunidades que nos trae el binomio euskera y medios de comunicación.

Palabras clave: Medios de comunicación, euskera, revitalización, ecosistema de la comunicación.

Cet article publie les textes des interventions des participants au congrès «Euskal Hedabideak, Itun bila». Les textes des interventions sont présentés selon trois axes : examiner rétrospectivement le processus de normalisation de la langue basque, étudier le rôle des médias dans la revitalisation de la langue, et regarder vers le futur en tenant compte des enjeux et des opportunités que nous donne le binôme langue basque et médias.

Mots-clés: Médias, langue basque, revitalisation, écosystème de la communication.

This article brings together the views of various authors on the importance of the media for the Basque language, expressed during the «Euskal hedabideak, itun bila» (Basque media, in search of agreement) conferences held in February 2017. In order to respect the logic of the original ideas, it focuses on three different areas: a retrospective look at the process of normalising Basque, the current potential of the media from the point of view of revitalising the language and, looking towards the future, the challenges and opportunities brought by the tandem of Basque and the media.

Keywords: Media, Basque, language revitalisation, communication ecosystem.

Sarrera

Hedabideak eta euskara parez pare jartzeak aukera bikoitza eskaintzen digu komunikabideen baitan gertatzen ari diren aldaketa sozial eta teknikoak aztertzeo eta euskarak XXI. mendearen lehen hamarkada hauetan bizi duen egoera sozialari erreparatzeko.

Biak ala biak errealitate soziala interpretatzeko talai ezinbestekoak bihurtu zaizkigu. Bien arteko eraginak aztertzeak gako garrantzitsuak eskaintzen dizkigu euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuei dagokienez, baina baita komunikabideen baitako eraldaketei dagokienez ere.

Artikulu honek 2017an Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan burututako «Euskal hedabideak, itun bila» jardunaldian esandakoak laburbildu eta jasotzeko asmoa du. Zehazki, hedabideek eta euskarak osatzen duten binomioaren esplorazio garaikidea eskaini nahi dugu, binomio honi erreparatu zaion lehen zein azken aldia ez dela jakinik.

Ahazkotik idatzizkora dagoen distantzia laburtu nahi izan dugu orrialde hauetan, ahoz esan eta belarriz entzun zen hura begiz irakurtzeko modura ekartzeko. Emaizta ahozkoaren eta idatzizkoaren tarteko formula bat izango da ziurrenez, gure garaiaren zeinu bihurtu diren idatzizko komunikazio forma berehalako eta ilaunen antzera, baina alderantziz.

Orainalditik atzera begira

Hedabideek XXI. mendean euskararentzat duten garrantzia aztertu eta orainaldia eta etorkizuna interpretatzea ahalbidetuko diguten gakoak aurkitzeko, ezinbestekoa zaigu begirada iragan hurbilera zuzentzea. Horretarako, 80 hamarkadaz geroztik, Iparraldeko, Nafarroako eta EAeko datu orokorrak aztertzeak profil orokor bat marrazten lagun diezaguke.

Batetik, ezagun zaigu euskararen ezagutza mailak gora egin duela Hegoaldean, nahiz eta gorakada hori Nafarroan askoz ere apalagoa izan den eta EAEn nabarmenagoa, bereziki, gazteen hezkuntzan D ereduak izandako arrakastagatik. Iparraldean, ordea, herritarren euskararen ezagutzak behe-

rako joera izan du (Eusko Jaurlaritzza, 2011). Gune soziolinguistikoka, logika ezberdinak eman dira azken hamarkadetan: herri erdaldun asko euskaldundu egin direla esan dezakegu, herri euskaldunenak erdaldundu egin diren bitartean. Errealitate berri hauen aurrean, arnaguneen garrantzia inoiz baino ikusgarriagoa egin zaigu (Salaberria, 2014).

Bestetik, euskal hiztunen profila aldatu eta anitzagoa egin da: geroz eta gehiago dira hiztun berriak, etxetik kanpo euskaldundutakoak. «Euskaldun zahar» eta «euskaldun berri» muturren artean aldagai ezberdinek zeharkatutako continuum oso bat sortu dela esan genezake, non jarrerak (proaktiboa vs. erreaktiboa), gaitasun motak (euskalkia vs. batua / kaleko hizkera vs. hizkuntza formala), erabilera mailak edota hiztunaren auto-kontzeptuak zeresan handia duten (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri & Urla, 2015).

Egun, ardura erabileran jarrita daukagu, ezagutzak gora egin duen arren, erabilera berdin antzera mantendu delako edo, are, behera egin duelako. Hala ere, euskararen ezagutza/ulermena orokortzeko bide handia dago egiteko oraindik. Hortaz, ezagutzaren gorakadan fokua jartzen jarraitzea ezinbestekoa da ezagutzak zuzenean erabilera ez dakarrela jakin arren, erabilera (edo erabilerarik eza) faktore indibidual eta baldintza sozialen eraginpeko emaitza konplexua baita.

Faktore indibidualen artean aipatu genitzake beldurrak, gaitasun nahikorik ez izatearen pertzepzioa, konplexuak, testuinguru soziolinguistikoan nagusi den hizkuntzara egokitze joera, euskararen ezagutza zabaldu ahal euskararekiko atxikimendu modalitate ezberdinak agertu izana eta abar. Bestalde, gazte asko eskolan euskaldundu izanak errealitate berriak ekarri dizkigu: euskararen normalizazioa egintzat hartzea edo auzi bezala ez sumatzea, elebidun hartzaile bilakatzeko arriskua eskolaz haratagoko gainerako sozializazio guztia erdaraz aurkitzen delako, hedabideak, aisia eta lana erdalduntzeko esparru bilakatu direlako, euskaraz bizitzeko zirkuiturik osatzerik lortu ez delako eta abar. Izan ere, baldintza sozialen artean, gune erdaldun edo euskaldunetan bizitzeaz gain, euskaraz funtzionatzeko produktu eta espazioetara sarbidea izatearen garrantzia handitu egin da. Hedabideena adibidez.

Hedabideak eta euskararen biziberritzea: eskaintzeko zer?

Euskal Herriko Unibertsitateko Josu Amezaga eta NOR ikerketa taldeko zenbait kideri aspalditik (2000) irakurri izan diogu hedabideek euskara eguneroko bizitzan barneratzeko aukera eskaintzen dutela. Auzi hau bereziki zentrala da gune erdaldunetako euskaldunen kasuan, noski. Komunikabideek euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen dute, tarreak irekitzen dituzte ezagutzen dugun, «dakigun», euskara hori «erabiltzeko».

IKTek eta komunikabideek komunitate (linguistiko) baten parte sentitzea eta ardatz ezberdinen araberrako identitateak artikulatzea ahalbidetu dezakete, erreferentzia kulturalak eskaintzeaz gain iruditegi kolektibo bat osatzen lagun baitezakete (Diaz Bizkarguenaga, 2016). Euskarazko hedabideek gure errealitatetik abiatu eta hortik mundura zabaltzeko aukera daukate (hizkuntza) komunitate sendoagoa, kohesionatuagoa, iraunkorragoa eraikitzeko.

Baina aldi berean, aukera hauek zabaltzeak galdera batzuk luzatzera behartzen gaitu: Zein neurritaraino betetzen dituzte hedabideek komunitatearentzat zentralak behar luketen funtzio hauek? Zein aukera eta erronka irekitzen dizkigute? Eman diezaiogun gainbegiratu bat.

Pernandoren egia irudi dezakeen arren, garrantzitsua da gogoratzea euskarazko hedabideek euskararako sarbidea eskaintzen dutela. Euskara eskaintzen diete haien hizkuntza gaitasunarekin pozik sentitzen ez direnei. Entzuleei, irakurleei, ikasleei. Kaleko elkarrekintzak baino eskaera maila txikiagoa eskaini dezakete, eta harekin batera euskara ikasteko eta euskara erabiltzen ikasteko bideak ere bai: erraztasun berriak lantzeko eta lortzeko bideak, alegia.

Hein horretan koka dezakegu, adibidez, euskarazko fikzioaren garrantzia. Hedabideak ez du soilik hizkuntzaren ezagutza lantzeko aukera ematen, hizkuntzaren erabilera (eta erabilgarritasun) sozialaren ezagutza ere lantzen lagundu dezake, euskararen funtzio sozial guztietara sarbidea eskainiz (maila jaso, lagunartekoa, ahozkoa, idatzizkoa...). Ideia hau azpimarratu zuten bide batez Galeseko Pobol y Cwm telesaileko gidoilari Gareth Evans eta Goenkale telesaileko gidoilari Pedro Fuentes eta Jose Luis Aranguren «Txi-

liku»-k 2015ean Deustuko Unibertsitatean ospatu zen «Fikzio seriatua hizkuntza gutxituetan» jardunaldian (Euskal Gaien Institutua, 2015). Hedabideak eurak, genero eta erregistroen aniztasunarekin batera euskararen (edo galesera bezalako beste hizkuntza gutxituen) pluraltasun eta potentzialtasun erreala presente egiteko funtsezko aldagaiak dira egun.

Finean, hedabideak hizkuntza-aktibaziorako bide hedakor eta eraginkorra izan daitezke, ohiturak lortu, bizitzaren beste arlo eta uneetara hedatu eta norbanakoa komunitateko kide sentitzera eraman dezaketenak. Hala gertatzekotan, euskarazko gaitasun objektibo eta subjektiboak landu eta hiztunari kontsumitzaile-hartzaile-erabiltzaile «huts» izatetik, sortzaile-igorle-parte hartzaile izatera doan jarraidurara sarbidea emango dion aukera bihur daitezke (Salces, 2017).

Egungo komunikabideen ekosisteman gehienok gara kontsumitzaile, baina gutxitan gara kontsumitzaileak bakarrik: komunitatearen birsortzaileak gara komunikabideekin harremanean, hartzaile hutsak baino gehiago. Hein berean, hedabide tradizionalak (telebista kateak, irratiak, prentsa idatzia...) ere geroz eta gehiago bihurtzen ari dira komunikabide: noranzko bakarreko igorpen-harrera dinamiketarik harago komunikazio-komunitateko kideek hartu, erabili eta zirkulazioan jarriko dituzten edukiak bultzatuz.


Horrela bada, nola irudikatu hedabideen eskaintza euskarak dituen erronkei begira? Batetik, era guztietako euskal hiztunak euskarazko hedabideetara hurbiltzeaz ari bagara, ezin ahaztu erabilera eta kontsumoa hautu bat direla egun. Egin daitekeen hautu bat, bai, baina inola ere ez bermatuta edo aurrez definituta datorrena. Euskal hiztun batzuk militantziaz hurbilduko dira euskarazko eskaintzara. Beste batzuek akaso hizkuntzarekin lotutako motibazio instrumentalak hurbilduko ditu euskarazko edukietara. Baina beste hiztun potentzial batzuk erakarri egin beharko dira haien nahi edo beharrei erantzun diezaiekeen eskaintza batera.

Gorka Salcesek (2017) «Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen» liburuan aipatu bezala, estrategikoa da hiru profil hauei begira monolaborantza gainditu eta osagarritasuna lantzea; eskaera potentziala ezagutu eta segmentatzeaz gain, eskaintza errealtatearengandik pausu bat aurrera emanda abiatzea, tokiko informazioa eta nazio

mailako lanketa, kirolak eta literatura, telebista saio popularrak eta jasoak uztartzeko. Aniztasun ideologiko, estilistiko eta linguistikoa, zentzu horretan, estrategikoa da euskal hiztun potentzialei zirkuitu kultural eta sozialera ez zik interpelatuko dituen komunitaterako sarbidea ere eskaintzeko.

Euskarazko 130 hedabide baino gehiago identifikatzen ditu Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta UEU batzen dituen Behategia (2018) proiektuak (ikusi 1. irudia).

1. irudia: Euskal hedabideen unibertsoa



Iturria: Gaindegia/Behategia, 2018a.

Grafikoak informazio aberatsa eskaintzen digu ez bakarrik euskarazko hedabideen euskarrien gainean (64 aldizkari, 32 irratia, 20 hedabide digital, 11 telebista kate eta 11 egunkari), baita hauen jabegoaren gainean ere (sozialak gehienak, pribatuak hurrena, jabego publikodunak azken). Baina agian informaziorik interesgarriena denboran zeharreko (batez ere 1979tik aurrerako) euskarazko hedabideen eboluzioaren gainekoa da. Ondorioa ar-

gia da: inoiz ez dugu hainbeste euskarazko komunikabiderik izan. Sektorearen aniztasuna eta indarra (begirada kuantitatibo eta panoramiko batetik) inoiz baino handiagoa da.

Baina ezagunak al dira euskal hiztunen artean aldizkari, irrati, atari digital, egunkari, telebista hauek? Zabalkundeari begiratuta lau hedabidetik hiru tokikoak eta lautik bat zabalkunde orokorrekoak izanda (Gaindegia/Behategia, 2018b), logikoa dirudi ezagutza maila tokikotasunarekin lotuta (eta mugatuta) egotea. Baina logikoa da era berean pentsatzea egun hedabideen artean saretze eta elkarlanerako ez ezik trukerako ere aukera berri eta eraginkorrak eskura daudela.

Komunitatearen eraikuntza eta fidelizazioa, prekaritate profesionala, kazetaritzaren krisia, transmedia kontakizunak... zer eta nola saretu hedabideen artean? Zein elkarlan lor liteke botere publiko eta ekimen sozialen artean? Nola bultzatu hedabide txikien dinamikotasuna eta bizia?

Euskarazko hedabideen sektoreari bete-betean dagozkio munduko beste hedabide sistemai dagozkien aukera eta arazoak. Baina inoiz ere ez modu berean: euskarazko hedabideek magnitude globaleko galderei tokian kokatutako erantzunak eskaintzea beste aukerarik ez dutela esan genezake.

Hiru ideia azpimarratu nahi genituzke hedabideak eta euskara binomioari begira bizi dugun garai honetan: euskarazko hedabideen ekosistema aldatu egin dela, euskararen jardunbideak ere aldatu egin direla, eta anbizio berriak behar ditugula euskararentzat.

Hedabideak eta euskara: aukerak eta erronkak

Bateratze multimedia eta digitalizazioa, bata besteari lotuta elkarri eraginez ari diren prozesu gisa, planeta osoko komunikazio sistemetan eraldaketak eragiten ari dira, baita Euskal Herrian ere. Nolabait esatearren, lurra mugitu zaigu gure oin azpietan, eta Salcesek aipatu bezala, sarri, «euskal hiztun komunitatearen auto-errepresentazio kartografiko klasikoak iraungi zaizkigu» (2017: 182).

Teknologia eta gizartea batera (eta elkar) aldatzen ari direla esan genezake, eraldaketa hauek irudikatu eta artikulatzeko ditugun gaitasun konzeptualak baino azkarrago sarritan. Edozelan ere, euskal irakur-ikus-entzunezko sistemaren baitan gertatzen ari diren eta gertatzen jarraituko duten aldaketak, gizarte garaikideen alor sozioteknikoak, aztertu eta ulertzea ezinbestekoa zaigu euskarak komunikabideen ekosistema berrian lekurik eta agentziarik izango badu.

Komunikabideen arteko mugak lausoagoak ez ezik porotsuagoak ere bilakatu dira. Duela hogeitau urte erraza (goa) zen jakitea irratsaio bat, egunkariko zutabe bat edo telesail bat non hasi eta non amaitzen zen. Hain erraza, ezen ez zen auzitan jartzen ere eduki edo produktu baten irrati, telebista edo prentsa *-tasuna*. Egun, hedabideen behin betiko sailkapen garbirik egitea geroz eta zailagoa da, eta eraldaketa sozioteknikoek (sare sozialetan irakur-ikus-entzunezko edukiak berrargitaratu eta bir-zirkularazteko praktikak, esaterako) hedabideen izaera eta funtzioa bera eraldatzea ekarri dute (Landabidea, 2015).

Irratiko elkarrizketa bat bideo formatuan bihurtu daiteke «biral» sare sozialetan, baina ez hori bakarrik. Ez dira hedabide tradizionalen arteko mugak lausotu zaizkigun bakarrak: geroz eta zentzu gutxiago du *on-line/off-line* banaketak, eta ez soilik teknikoki geroz eta denbora gehiago gaude-lako *on-line*, baizik eta irudikatzen geroz eta zailagoa delako komunikabideek zeharkatzen ez duten euskal gizarte garaikiderik ere.

On-line sare sozialen erabilerak eta Internet bidezko irakur-ikus-entzunezkoen kontsumoak goraka jarraitu du plataforma ezberdinetan, tartean direla komunikabide tradizionalagoen (irratia, telebista, prentsa idatzia...) digitalizazio, bateratze multimedia (eta korporatiboa) eta arretaren zatikatze prozesuak. Baina prozesu hauek ez dira jarraituak, zuzenak eta koherenteak izan; alderantziz, etenduraz betetakoak, desorekatuak eta dinamikoak izan dira. Teknologia eta gizartea elkar aldatzen ari direla esan dugu lehen, eta, horrexegatik ezin dugu esan, adibidez, *on-line* sare sozialen popularizazioak euskal gizartean eragin zehatz bat izan duenik euskal gizarteak lineako sare sozialetan eragina izan duela kontuan hartu gabe. Hein berean, Euskal Irrati Telebistaren eta euskal gizartearen arteko harremanak ez dira soilik eko-

sistema osoaren transformazioaren ondorioz eraldatu, baina prozesu hauek ezinbestekoak dira eman diren eraldaketak ulertu ahal izateko.

Eraldaketa hauek hain izaten ari dira sakonekoak, azeleratuak eta transbertsalak, ezen lurralde berriok kartografiatzeko mapa mota berriak beharko ditugun hemendik aurrera.

Kontua ez da hemendik aurrera herensugeak daudela, *hic sunt dracones*, antzinagokoen idatzita utzi zuten bezala; herensugeak jada gure artean daude, eta perspektiba geografiko-espazial hutsez haratago ezagutzan aurrerapauso kontzeptual eta metodologikoak beharko ditugu, metafora berriekin batera.

Arnasguneen metafora, adibidez, eguneratu egin beharko dugu ingurune digitalean funtzionala izango bada. Arnas soziolinguistikoaz ez eze, bizitasun digitalaz ere geroz eta gehiago arituko gara ziurrenez. András Kornai (2013) ikertzaile hungariarrak Hizkuntzaren Heriotza Digitalaren hipotesia plazaratu zuen. Haren ustetan lau bizitasun maila nagusi bereizi genitzake hizkuntzen presentzia digitalari dagokionez:

1. Oparoa (*Thriving*). Hizkuntzaren erabilera digital zabala, bai lehen hizkuntzan eta bai atzerriko hizkuntzan.
2. Bizia (*Vital*). Lehenengo hizkuntzatzen duten hiztunek digitalki komunikatzeko darabilte eta sostengu teknologikoa dute (zuzentzaileak, Wikipedia, Biblia...), sistema eragile mailako (Windows, Linux, Mac OS) sostengurik sarri izan ez arren.
3. Ondarea (*Heritage*). Ahozkotasunik gabeko baina baliabide digital aberatseko hizkuntzak.
4. Barea (*Still*). Jarduera digitalik gabeko hizkuntzak.

Hizkuntzen arteko ezberdintasun hazkorrekin kezkatuta, Tom Moring-ek, Finlandiako suedieraren hizkuntza komunitatearen ikertzaileak, hizkuntza gutxituen etorkizuna digitalizatutako komunikabideen garapenarekin lotu izan du zuzenean. Haren ustez, etorkizunean munduko hizkuntzen %95 ingurune digitalak eskainiko dituen bizitasun digitalaren aukeretatik at geldituko da, hizkuntzarik indartsuenak indartsuago eta ahulagoak ahulago bihurtuko direlarik (Moring, 2013).

Izan ere, garapen teknologikoa eta gizartearen garapena eskuz eskuz doaz XXI. mende hasieran; eta geroz eta gehiago dira globalizazioaren eta digitalizazioaren aroan hizkuntzen arteko kontaktua eta hizkuntza gutxituen erresilientzia aztertzen ari diren herrialdeak eta hizkuntza komunitateak (Gruffyd-Jones, Uribe-Jongbloed, 2013).

Ez dakigu bizitasun eta heriotza digitalaren hipotesiak berretsi edo baztertu egingo ditugun etorkizunean. Goizegi da horretarako oraindik. Baina badakigu (euskarazko) hedabideen ekosistema osoa aldatu egin dela: irismena eta sarbidea, partaidetza eta parte-hartzea, arretaren zatikatzea eta saretzea bezalako kontzeptuak birpentsatzera behartuta gaude, nahi ala ez.

Are gehiago, hedabideen sistema bera ez ezik, euskararen jardun eta funtzioak, izaera eta ezaugarriak ere aldatzen ari dira egoera berrian. Batetik, euskararen egoera soziolinguistikoa bera aldatzen ari delako:

«Datozen bi hamarkadetan gero eta herritar gehiago izango ditugu euskara bigarren hizkuntza dutenak; gero eta euskaldun gehiago izango ditugu lehen hizkuntza euskara ez den beste bat dutenak, gehien-gehienak gaztelania noski (jada hala da 40 urtetik beherako euskaldunen %54,8); gero eta euskaldun gehiago izango ditugu bizi-modua ingurune ez hain euskaldunetan egiten dutenak, gero eta euskaldun gehiago izango ditugu euskaraz baino erraztasun handiagoa dutenak gaztelaniaz...» (Euskararen Aholku Batzordea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016).

Euskaldun zahar eta berri terminoak zahartu egin zaizkigu esku artean; eta gehiago ere zahartuko zaizkigu etorkizun hurbilean. Euskara erabiltzea, adibidez, zer da gaur egun? Euskaraz hitz egitea? Whatsappeko talde bateko euskarazko elkarriketak irakurtzea? Zinema edo telebista euskaraz kontsumitzea? Sare sozialetatik euskarazko aldizkari edo egunkari baten edukira sartzea?

Zer da euskara gaur, presentzia eta absentsia moduak (eta hitzunen eta ez-hitzunen tipologiak zer esanik ez) biderkatu zaizkigun honetan? Zertaz ari gara *erabilera* aipatzen dugunean? Kuantitatiboki ez ezik, nola aldatu dira kualitatiboki ere euskararen erabilerak? Norantz doaz? Zein etorkizun marraz ditzakegu?

Ahozkotasun eta *idatzizkotasun* berriak sortuko dira, erregistro zahar-berriak, hika eta berorika berriak, agian, euskalkien bir-prestigmatze saioak, eztabaida zaharrak, araua eta arauaren hausketa berriak, Whatsapp, Twitter, Facebook, Instagram eta etorriko diren ehunka plataforma berritan.

Euskararen jardute garaikidea definituko duen garaia ere bada bizi dugun hau. Euskaraz jardutea, euskalduna izatea, elebiduna zein eleaniztuna izatea birdefinitzeko aukera daukagu, egoera batzuei aurrea hartuz eta beste batzuen etorrera bultzatuz. Definizio gokiak bilatzeko lana ere bada tokatzen zaiguna.

Eta birdefinizio lan hauekin lotuta dago aurkeztu nahi genukeen hirugarren ideia, anbizio eta desirarena. Eraldaketa teknologikoak ez dira inoiz teknologikoak soilik, esangura eta funtzio sozialek taxutuko baitituzte ezinbestean.

Hizkuntzaren gramatika eta soziologia berrietarantz goaz, nahi ala ez, iraganaren eta etorkizunaren nostalgiaren artean. Etorriko dira aditz forma berriak (ikus *Trinkotzaindia* eta sareko umorezko adizgintza berriak: *dalaket, ez dulert, dalovit, dizerdit...*), baina batez ere etorriko dira galdera berriak: ustez ezagun zitzaizkion lurretan paisaia berriak aurkitu zituen bidaiariaren kasuan bezala, euskal soziolinguistikaren ikuspegitik zein euskal masa komunikazioaren perspektibatik, gelditu eta galderak berriro egiteko garaia da gurea: mapak berriro kontsultatu ez ezik baita mapak berriro pentsatu eta marraztekoa ere.

Baina kartografo irudimentsu eta talentudunez gain zerbait beharko badugu, behategi, behatzaile eta behaketa gehiago eta hobeak izango dira. Errealitate objektibo eta subjektibo aldakorrei buruzko informazio fidagarria eskainiko diguten talaiak, eta informazio hau parametro *gureago*etan neurtu ahal izango dituzten tresna, metodo, neurri eta diziplinak.

Eta beharko dugu elkarlanerako kultura berri bat, finantzak eta konfiantzak josi, zaindu, babestu, berrikusi, egin eta berregiteko baldintzak sortuko dituen, logika antzekoak, berdintsuak eta ezberdinak koexistitzen direla onarturik.

Elkarlanerako kultura honen adibide bat jartzearen, euskarazko edukien euskal audimetria sistema sortzera bideratu beharko lirateke ahaleginak.

Egun, gureak ez diren dibisetan jartzen ari gara prezioak gure produktuei. Bada garaia ingurune digitalaren eraldaketetara egokitutako euskarazko audientzien neurketa eta ezagutzarako sistema duin, garaikide eta aurreratu bat diseinatu eta inplementatzeko (audientzien ezagutzan ez ezik, hauen inguruko adostasunen eraikuntzan ere aurrera egiteko gaitasuna izango duena). Ezagutza eta adostasuna gako garrantzitsuak izango dira etorkizuneko egoeretara gure klabeetan (edo klabe *gureagoetan*) hurbildu ahal izateko.

Horretarako ezinbestekoak izango zaizkigu bi eragile mota. Batetik, Behategiaren *Datutegia* bezalako proiektuak aurkituko ditugu, euskarazko hedabideen sektorea eta euskal unibertsitateak elkarlanean jarriko dituen, datuak lortu, landu, aztertu eta interpretatzeko gaitasuna sortuz (ikus adibidez *Euskal hedabideen urtekaria*). Izan ere datuak lortu, bildu eta batzeaz gain, elkarlanean irakurri eta interpretatu beharko ditugu etorkizunean.

Bestetik, euskararen eta euskal hiztun komunitatearen errealitate objektibo eta subjektiboak kontuan izango dituzten eragileak beharko ditugu, hizkuntzarentzako eta hiztunentzako bizi-eremuak kontuan hartuko dituztenak, perspektiba sistemiko batean integratuz. Anbizio osoa behar dugu: bide berriak, bide guztiak. IKTen eta komunikabideen ekosisteman gertatzen ari diren aldaketek, ingurune digitalean ematen ari diren aldaketek, denoi eragin digute, handi nahiz txiki.

Zaharrak eta txikiak garelara esan diogu luzaro (akaso luzaroezi) gure buruari. Akaso ez gara hain txiki edo hain zahar. Edo agian erlatiboki txikiak gara beste hizkuntz komunitate batzuekin alderatuta, baina ingurua azkar aldatzen ari da eta horrek ezusteko abantaila batzuk eskain diezazkiguke. Gogora ekartzekoa da, adibidez, nork egin zuen aurrera azkenean: dinosau-ro handiek edo ugaztun txikiek.

Artikuluaren izenburura itzulita, baina, zergatik dira garrantzitsuak hedabideak XXI. mendean euskararentzat? Erantzuna argia da gure ustez: XXI. mendeko hizkuntzen errealitatea geroz eta lotuago dago hedabideekin. Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko komunikaziorako teknologien eraldaketak aldaketa soziolinguistikoekin lotuta doaz, nabarmen. Jokaleku honetan euskara bezalako hizkuntza gutxitu batentzat apustu guztiak garrantzitsuagoak dira, irabazteko eta galtzeko gehiago daukagulako.

Komunikazioaren ekosistema aldakor honetan euskararentzako benetako apusturik ez egitea litzateke arriskurik handiena.

Bibliografia

AMEZAGA, J., & NOR IKERKETA-TALDEA, 2000, *Hedabideak eta Euskal Herria*. Eibar: Udako Euskal Unibertsitatea.

DIAZ BIZKARGUENAGA, 2016, *FaceGUK: euskal identitatea eta komunitatearen erakuntza Internet garaian*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

EUSKAL GAIEN INSTITUTUA, Deustuko Unibertsitatea, 2015, *Goenkale eta Pobol y Cwm: hizkuntza gutxietan idaztea telebistarako*. Ekitaldiaren bideoa <https://blogs.deusto.es/euskalgaiak/goenkale-eta-pobol-y-cwm-hizkuntza-gutxietan-idaztea-telebistarako/> helbidean eskuragarri.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, 2016, *Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo «Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen»*. Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza.

EUSKO JAURLARITZA, 2011, *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/v_mapa_soziolinguistikoa/eu_def/adjuntos/V%20%20Mapa%20EU.pdf-etik eskuratua.

GAINDEGIA / BEHATEGIA, 2018a, *Euskal hedabideen unibertsoa*. <http://behategia.eus/mapak/euskal-hedabideen-unibertsoa/-etik> eskuratua.

———, 2018b, *Hedabideak lurraldean*. <http://behategia.eus/mapak/hedabideak-lurraldean/-etik> eskuratua.

JONES, E. H., & URIBE-JONGBLOED, E., 2013, *Social media and minority languages: convergence and the creative industries*. Bristol: Multilingual Matters.

KORNAI, A., 2013, *Digital Language Death*. PLoS ONE, 8(10). doi:10.1371/journal.pone.0077056

LANDABIDEA, X., 2015, *Euskaldunok eta telebista XXI. mendearen hasieran*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

MORING, T., 2013, «Media Markets and Minority Languages in the Digital Age», *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe* 12 (4), 34-53. <http://www.ecmi.de/fileadmin/downloads/publications/JEMIE/2013/Moring.pdf> -tik eskuratu.

ORTEGA, A., AMORRORTU, E., GOIRIGOLZARRI, J., URLA, J., 2015, *Hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

SALABERRIA, I., 2014, «Arnas-estutik urbietara». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 90, 61-79.

SALCES, G., 2017, «Komunikabideak eta gu berriak: mapak iraungi zitzaizkiguneko», in J. Goirigolzarri, X. Landabidea, I. Manterola (Ed.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Eibar: Udako Euskal Unibertsitatea, 181-199.